



BILBAO
UDALA
AYUNTAMIENTO

CONVENIO por el que se canaliza la subvención prevista nominativamente en el Presupuesto Municipal concedida directamente por AYUNTAMIENTO DE BILBAO – ÁREA DE SALUD Y CONSUMO a la ASOCIACION “HAURRENTZAT, para el desarrollo del programa de promoción de la salud en el dispositivo *Servicio de salud mental infanto juvenil “Julián de Ajuriaguerra*.

REUNIDOS

De una parte, Doña Yolanda Díez Saiz, Concejala Delegada del Área de Salud y Consumo del Excmo. Ayuntamiento de Bilbao, por delegación de la Junta de Gobierno de fecha XXXXX de 2023.

Y de otra, D^a Cristina Maestro Fernández, Presidenta de la Asociación Haurrentzat, con CIF. G48175673.

Ambas partes, en la representación que ejercen, se reconocen con capacidad legal suficiente para la celebración del presente acto y, a tal fin,

EXPONEN

Primero.- El Ayuntamiento de Bilbao – Área de Salud y Consumo, en el marco de lo dispuesto por la Ley 2/2016 de Instituciones Locales de Euskadi (Art. 17.1.10), ejerce la competencia propia en el ámbito material “promoción, gestión, defensa y protección de la salud pública” y, más específicamente, la función prevista en el Art. 14 de la Ley 8/1997, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, que dispone que las Corporaciones Locales orientarán el ejercicio de sus actuaciones al desarrollo de actividades de promoción de la salud.

Segundo.- El Ayuntamiento de Bilbao – Área de Salud y Consumo desarrolla una planificación estructurada de programas en orden a inculcar hábitos saludables y de promoción de la salud a la ciudadanía de Bilbao. A su vez, también fomenta la participación del tejido asociativo de Bilbao mediante apoyo económico a aquellas actividades que coadyuvan el mencionado interés municipal.

Tercero.- El Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Bilbao, definido como instrumento necesario para articular y definir los principios y estrategias regidores de la actividad subvencional del Ayuntamiento de Bilbao, recoge dentro del régimen de concesión directa, sin necesidad de realizar una convocatoria pública, las subvenciones previstas nominativamente en el Presupuesto Municipal.

Así, el Presupuesto de Gasto del Área de Salud y Consumo 2023, Capítulo IV, describe subvención nominativa a favor de la Asociación Haurrentzat, por importe de 18.000 euros, para el desarrollo del programas de promoción de la salud en el colectivo infanto-juvenil que la citada Asociación promueve en el dispositivo denominado Servicio de Salud mental infanto-juvenil “Julián de Ajuriaguerra”, para el año 2023.

P.E.P.: 2023-23000-4-00177-2023

APG: 2023-23000-31110-4819900

Cuarto.- La “Asociación Haurrentzat” entidad con personalidad y capacidad jurídica propia, de acuerdo con sus Estatutos tiene como fines:

- Atender a los problemas de la infancia y de la juventud, considerados dentro del contexto de la comunidad en la que viven y sus manifestaciones de carácter escolar, social y sanitario.
- Promover la mejora de la calidad de vida de la comunidad, de los servicios educativos, sanitarios y sociales para la prevención y dar respuesta a los problemas que afectan a la infancia y a la juventud.
- Valorar la situación de la infancia, adolescencia y juventud de su entorno de influencia y promover acciones positivas para su completo desarrollo social y personal.
- Crear servicios de carácter educativo, sanitario o social, cuando no existan en la comunidad y se crea necesario.
- Buscar formas de participación social en todos los servicios relacionados con la infancia y juventud existentes en el ámbito de actuación.
- Colaborar y participar con los servicios educativos, sanitarios y sociales públicos, buscando el apoyo y respaldo de los Organismos correspondientes de la Administración de la Comunidad Autónoma Vasca.

La “Asociación “Haurrentzat”, ubicada en el barrio bilbaíno de Rekalde (Distrito 7), lleva más de 30 años trabajando en la consecución de sus fines y en el desarrollo de las estrategias descritas en el apartado segundo a través del dispositivo Servicio de Salud mental infanto-juvenil “Julián de Ajuriaguerra”.

Desde el año 1988 el Ayuntamiento de Bilbao, a través del Área de Salud y Consumo ha colaborado en la financiación económica de la actividad desarrollada en el precitado recurso, colaboración que debe de seguir en vigor por entender que la iniciativa social descrita, por su origen, trayectoria y valor de cohesión posee un grado de implantación en el ámbito territorial y material en el que actúa.

Quinto.- El día 15 de febrero de 2023 la citada Asociación presenta Programa de promoción de la salud en el colectivo infanto-juvenil que la misma promueve en el dispositivo denominado Servicio de Salud mental infanto-juvenil “Julián de Ajuriaguerra” a desarrollar en el año 2023. En dicho Programa se informa de la imposibilidad de desarrollarlo más allá del 30 de junio de 2023, ya que la prórroga del concierto sanitario entre la Delegación Territorial de Salud de Bizkaia y la Asociación Haurrentzat finaliza el 3 de julio de 2023 y ello imposibilita a la Asociación a continuar con todos sus proyectos más allá de esa fecha. No obstante y desde un punto de vista técnico no se ven alteradas las acciones que conforman el presente programa, únicamente que el tiempo de ejecución de las acciones, se reduce exactamente a la mitad, por lo que el presupuesto también se reduce a la mitad pasando de 18.000€ a 9.000€.

Junto con el Programa presenta también el Presupuesto de Ejecución por conceptos. Los citados documentos, Programa y Presupuesto, se acompañan como Anexos al presente Convenio, Anexo I “Programa de promoción de la salud en el colectivo infanto-juvenil en el dispositivo denominado Servicio de Salud mental infanto-juvenil “Julián de Ajuriaguerra””, Anexo II “Presupuesto de Ejecución” (acompañado de documento explicativo) formando ambos parte del mismo, por lo que deberán ser suscritos por las partes.

Sexto.- La Junta de Gobierno de la Villa de Bilbao en su sesión celebrada el día XXXXXX de 2023 ha acordado conceder directamente a la Asociación Haurrentzat subvención por importe de 9.000,00€ prevista nominativamente en el Presupuesto de Gastos Municipal 2023 para el desarrollo del Programa básico denominado Servicio de salud mental infanto juvenil “Julián de Ajuriaguerra”.

Séptimo.- Siendo los convenios el instrumento habitual canalizador de las subvenciones previstas nominativamente en los presupuestos locales, el Ayuntamiento de Bilbao (Área de Salud y Consumo) y Asociación Haurrentzat, en virtud de cuanto antecede, acuerdan definir los compromisos y condiciones dimanantes de la subvención directa concedida, suscribiendo el presente Convenio con arreglo a las siguientes:

ESTIPULACIONES

Primera.- El objeto del presente convenio es canalizar la subvención prevista nominativamente en el Presupuesto Municipal concedida directamente por Acuerdo de la Junta de Gobierno de la Villa de Bilbao de fecha XXXXXXXXX de 2023, a la Asociación “Haurrentzat” para el desarrollo de programas de promoción de la salud en el colectivo infanto-juvenil que la citada Asociación promueve en el dispositivo denominado Servicio de Salud mental infanto-juvenil “Julián de Ajuriaguerra”, conforme a los contenidos incluidos en el citado Programa (Anexo I) y en el presupuesto de ejecución(Anexo II), disponiendo en consecuencia, los compromisos ,condiciones ,derechos y obligaciones de las partes suscriptoras del mismo.

Segunda.- La Asociación Haurrentzat, entidad de experiencia contrastada en la realización de programas y actividades descritas en el apartado anterior, se compromete a la ejecución de programa básico denominado Servicio de salud mental infanto juvenil “Julián de Ajuriaguerra”, recurso dirigido a atender desde el punto de vista terapéutico los problemas psico-socio-sanitarios de la infancia y la juventud asistido de una programación complementaria, cuyo apoyo es objeto del presente Convenio.

En concreto, queda incluido en este Convenio el desarrollo de la siguiente programación:

1.- Programa de Atención a la familia

Mediante esta acción se busca mejorar las interacciones que suceden dentro del marco familiar, posibilitando la mejora del ambiente en el que el menor debe desarrollarse y favoreciendo con ello la posibilidad de una evolución positiva de la salud mental del menor.

Esta acción se lleva a cabo mediante sesiones con la familia. En estas sesiones se asesora y orienta al grupo familiar en torno al establecimiento de líneas de comunicación que mejoran el entorno familiar y consolidan a los padres, madres y tutores como un elemento importantísimo en la acción con el menor.

Dentro de estas sesiones se realiza el siguiente cometido:

- ✓ Explicación de la situación a la familia.
- ✓ Establecimiento y determinación de pautas a seguir con el menor.
- ✓ Control en el despliegue de estas pautas.
- ✓ Asesoramiento en torno a las conductas a seguir por parte de la familia para mejorar el desarrollo del menor.
- ✓ Monitorización del desarrollo y evolución del menor en el entorno familiar.

La periodicidad de las sesiones viene definida por la situación del entorno familiar del menor, adaptándose a las necesidades detectadas.

2.- Programa de Atención al menor inmigrante

Tiene como objeto la atención a menores procedentes de otros países y que se encuentran con el problema de la eficaz integración en el entorno social, escolar, familiar y cultural. Para ello, se realiza una labor de refuerzo, con la familia cuando es posible, en colaboración con las entidades sociales que se ocupan del bienestar social de las mismas, abarcando los siguientes ámbitos:

- ✓ El menor, su atención específica referente a la patología que demuestra.

- ✓ El familiar, en la medida que recibe consejo, asesoramiento y monitorización del proceso del menor.
- ✓ El socioeducativo, manteniendo contactos para el desarrollo de iniciativas que mejoren la evolución del menor, desde los entornos inmediatos en el que el menor se ha de desenvolver, con el fin de apoyar su integración personal y social.

3.- Programa de coordinación con las Áreas Municipales y con las entidades y asociaciones del ámbito socio-sanitario

Desde la perspectiva de la salud mental como el resultado de un entorno sociocultural, familiar y educativo adecuado, la Asociación Haurrentzat, a través de este programa, coordina sus actividades tanto con las Áreas municipales como con el entramado socio-sanitario del distrito.

En esta línea de actuación, se aporta la información necesaria a las Unidades de Base de los Servicios Sociales Municipales para ajustar el trabajo e incrementar el efecto de las iniciativas contextualizado en el trabajo social con las familias y entornos de los que proceden los pacientes.

La metodología se fundamenta en reuniones de coordinación con los servicios sociales de base, con una periodicidad marcada por las necesidades sociales del distrito, en la medida de las posibilidades que marca la obligación de confidencialidad y las situaciones vividas por el paciente.

Con el Área de Salud y Consumo, se establecen mecanismos de coordinación y apoyo.

Tercera.- La Asociación “Haurrentzat” se compromete a disponer de los recursos personales, materiales pertinentes para garantizar el desarrollo de la programación conveniada descrita en el apartado segundo. Así mismo se compromete a:

- Realizar y remitir informes puntuales, dentro del ámbito del Convenio, a petición del Área de Salud y Consumo.
- Comunicar con antelación suficiente cualquier eventualidad que pudiera repercutir en la realización de la programación conveniada, acompañado de las alternativas de actuación en el supuesto de que dicha repercusión determine la imposibilidad de desarrollar alguna de las actividades conveniadas.
- Cumplir, especialmente en lo referente al personal adscrito a la realización de actividades que se relacionan en el presente convenio, con la normativa fiscal, laboral, Seguridad Social y de Seguridad e Higiene en el trabajo.

El Ayuntamiento de Bilbao se reserva la facultad de realizar cuantas investigaciones y/o comprobaciones estime oportunas en orden a verificar el

cumplimiento de los compromisos asumidos por la Asociación Haurrentzat, así como la veracidad de los datos contenidos en las justificaciones e informes solicitados.

El personal responsable de la Asociación vendrá obligado a colaborar con la Administración en la función de fiscalización.

Las actividades incluidas en la programación convenida serán gratuitas y el colectivo destinatario será la población de Bilbao en general.

Al mismo tiempo se contemplará la perspectiva de género, integrándola en la medida de lo posible en las actividades a desarrollar. Con carácter obligatorio, la entidad deberá publicar la participación municipal en el desarrollo de este proyecto incluyendo el logotipo del Ayuntamiento (Área de Salud y Consumo) en los materiales que genere (hojas informativas, folletos, carteles...) e informando a los responsables de los centros asesorados de la citada colaboración.

Cuarta.- El Ayuntamiento de Bilbao (Área de Salud y Consumo) financia económicamente el desarrollo de la actividad convenida mediante la concesión de forma directa de una subvención descrita nominativamente en el presupuesto municipal, por un importe máximo de 9.000 €, habiéndose efectuado las oportunas operaciones económicas-contables con cargo al presupuesto de gasto del Área de Salud y Consumo para el ejercicio 2023. El desembolso de la cantidad, en único pago, se efectuará a la firma del presente Convenio, no resultando necesaria la presentación de garantía.

Quinta.- La presente subvención es compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualquier Administración o entes públicos o privados nacionales, de la Unión Europea o de Organismo internacional.

Sexta.- El desembolso de la subvención concedida 9.000 € se efectuará, en un solo pago, a la firma del Convenio no resultando necesario la exigencia de garantía. La justificación de la subvención recibida será efectuada por la Asociación Haurrentzat en los tres meses siguientes a la finalización del Convenio (antes del 1 de octubre de 2023)

Séptima.- Cualquier modificación sustancial del programa habrá de ser solicitada con carácter previo a su realización por escrito al Ayuntamiento de Bilbao quien deberá expresamente autorizarla.

Las solicitudes de modificación sustancial han de estar motivadas, especificando las repercusiones presupuestarias y del cronograma que implican. La Junta de Gobierno delega en la Delegación del Área correspondiente la autorización de estas modificaciones.

A tal efecto se consideran modificaciones sustanciales las siguientes:

- Cambios en los objetivos generales y/o específicos.

-Variaciones superiores al 20% en los importes de las partidas del presupuesto aprobadas (las variaciones presupuestarias entre partidas no podrán afectar a los costes indirectos), que no impliquen minoración del presupuesto total del programa. Si la modificación implica una minoración del presupuesto del programa deberá aprobarse por la Junta de Gobierno.

Cualquier otra modificación que no altere esencialmente la naturaleza u objetivos de la subvención podrá ser aceptada en el momento de la justificación, siempre y cuando tal aceptación no suponga dañar derechos de terceros.

Octava.- Se considerarán gastos subvencionables aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido en el Convenio. En ningún caso el coste de adquisición de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor del mercado.

Cuando el importe de un concepto subvencionable supere las cuantías establecidas en la legislación de contratos del sector público para el contrato menor⁽¹⁾, la entidad beneficiaria deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo a la contracción del compromiso para la obra, la prestación del servicio o la entrega del bien.

La elección entre las ofertas presentadas, que deberán aportarse en la justificación, o, en su caso, en la solicitud de subvención, se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

(1)Según lo dispuesto por la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, se consideran contratos menores los contratos de cuantía inferior a 15.000 euros (IVA no incluido), cuando se trate de contratos de suministros o de servicios

Novena.- La justificación de la presente subvención se realizará en un plazo máximo de tres meses desde la fecha de finalización del Convenio, **antes del 1 de octubre 2023**, según lo dispuesto por el Art 72 del RGS, presentación de cuenta justificativa con aportación de justificantes de gasto que incluirá:

- a) Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.
- b) El balance de gastos e ingresos correspondiente a la ejecución del programa, conforme al modelo facilitado por el Ayuntamiento.
- c) La documentación original justificativa que acredite los gastos efectuados dentro del plazo previsto para la ejecución del programa, distinguiéndose a estos efectos:
 - Los costes directamente relacionados con la ejecución del programa, que deberán quedar justificados en su totalidad, mediante facturas y demás documentos de valor probatorio equivalente.
 - Los documentos que soporten la justificación de gastos incluirán, en todo caso, los siguientes datos:
 - La identificación de la persona beneficiaria.
 - La descripción del objeto del gasto, que deberá estar directamente relacionado con la ejecución del programa.

- Asimismo, los documentos que soporten la justificación se circunscribirán únicamente al programa que justifican. Con carácter excepcional, en supuestos de actividades llevadas a cabo ocasionalmente por personas que no ostenten la condición de empresarias o profesionales, se podrá admitir la presentación de documentos en los que figure el recibí del importe de la prestación convenida, junto con copia del documento identificativo (DNI, NIE o pasaporte) de la persona perceptora, a los que se acompañará necesariamente, cuando su importe sea superior a 200€, el documento acreditativo de la realización del abono en la cuenta bancaria de la persona perceptora.
- Los gastos de personal se acreditarán mediante la presentación de las nóminas y cotizaciones a la seguridad social.

Los costes indirectos, para los que, salvo requerimiento expreso, no se exigirá justificación documental alguna. Estos costes habrán de imputarse por la persona o entidad beneficiaria a la actividad subvencionada en la parte que razonablemente corresponda de acuerdo con principios y normas de contabilidad generalmente admitidas y, en todo caso, en la medida en que tales costes correspondan al periodo en que efectivamente se realiza la actividad, sin que, en ningún caso, la imputación llevada a cabo pueda resultar superior al 10 por ciento de los costes directos del programa subvencionado. A efectos de justificación, el porcentaje admitido de costes indirectos será el mismo que el declarado por la entidad en el presupuesto que sirve de base para la concesión de la subvención, y se aplicará sobre los gastos directos efectivamente justificados.

Décima.- El presente Convenio entrará en vigor en la fecha de suscripción del mismo retrotrayendo su efecto a 1 de enero de 2023 y finalizará el 30 de junio de 2023.

Undécima.- El presente Convenio se cumplirá a tenor de lo dispuesto en sus estipulaciones, siendo resueltas las dudas y lagunas que pudieran presentarse conforme a lo prescrito por la Ley de Subvenciones 38/2003, General de Subvenciones, y demás disposiciones normativas aplicables por razón de la materia.

Y en prueba de conformidad lo firman las partes intervinientes en el lugar y fecha al comienzo recogidos.

**LA CONCEJALA DELEGADA DEL
AREA DE SALUD Y CONSUMO**

ASOCIACIÓN HAURRENTZAT

Dña. Yolanda Díez Saiz

Dña. Cristina Maestro Fernández



HITZARMENA, BILBOKO UDALAREN OSASUN ETA KONTSUMO SAILAK HAURRENTZAT ELKARTEAri zuzenean emandako dirulaguntza izenduna bideratzeko, Julian Ajuriagerra Osasun Mentaleko Zentroan haur eta gazteen osasuna sustatzeko programa aurrera eramateko.

HONAKO HAUEK BILDU DIRA:

Batetik, Yolanda Díez Saiz, Bilboko Udalaren Osasun eta Kontsumo Saileko zinegotzi ordezkaria (Gobernu Batzordearen 2023ko xxxxxxxxxx eskuordetze bidez).

Eta, bestetik, Cristina Maestro Fernández, Haurrentzat elkartearen presidentea (elkartearen IFK: G48175673).

Bi alderdiek, ordezkari gisa, egintza hau aurrera eramateko legezko gaitasun nahikoa aitortzen diote elkarri, eta, horretarako, honako hau

ADIERAZTEN DUTE:

BAT.-Bilboko Udalaren Osasun eta Kontsumo Sailak (aurrerantzean, Osasun eta Kontsumo Saila), Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen esparruan (17.1.10 art.), berezko eskumena egikaritzen du «osasun publikoaren sustapena, kudeaketa, defentsa eta babesa» arlo materialean. Zehazkiago, Euskadiko Antolamendu Sanitarioen 8/1997 Legearen 14. artikuluan aurreikusitako funtzioa

betetzen du Udalak —artikulu horrek dio toki-korporazioek beren jarduketak bideratuko dituztela osasuna sustatzeko jarduerak garatzera—.

Bi.- Bilboko Udalaren Osasun eta Kontsumo Sailak programen plangintza egituratua du, bilbotarren artean ohitura osasungarriak eta osasuna sustatzekoak bultzatzeko. Horrez gain, Bilboko elkartegintzak parte hartzea sustatzen du, Udalaren helburu hori aurrera eramateko jardueretarako laguntza ekonomikoa emanez.

Hiru.- Bilboko Udalaren aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa da Bilboko Udalaren dirulaguntza-jardueraren printzipio eta estrategia arautzaileak artikulatzeko eta definitzeko beharrezko tresna. Eta, dirulaguntzak zuzenean, deialdi publikorik egin beharrik gabe, emateko araubidearen barruan, Udal Aurrekontuan aurreikusitako dirulaguntza izendunak jasotzen ditu.

Horrela, bada, Osasun eta Kontsumo Sailaren 2023rako gastu-aurrekontuak, IV. kapituluan, Haurrentzat elkaratearen aldeko 18.000 €-ko dirulaguntza izenduna aurreikusten du, elkarateak Julian Ajuriagerra Osasun Mentaleko Zentroan haur eta gazteen osasuna sustatzeko programak aurrera eramateko.

PEPa: 2023-23000-4-00177-2023

APGa: 2023-23000-31110-4819900

Lau.- Haurrentzat elkarateak berezko nortasun eta gaitasun juridikoa ditu. Bere estatutuen arabera, hauek dira bere helburuak:

- Haur eta gazteen arazoei, eta arazo horiek eskolan, gizartean eta osasunean dituzten adierazpenei erantzutea, haur eta gazte horiek bizi diren komunitatearen testuinguruan.
- Komunitatearen bizi-kalitatea eta hezkuntza-, osasun- eta gizarte-zerbitzuak hobetzea sustatzea, haur eta gazteei eragiten dieten arazoak prebenitzeko eta arazo horiei erantzun bat emateko.
- Elkaratearen eragin-eremuko haur, nerabe eta gazteen egoera baloratzea eta haien garapen sozial eta pertsonal osoa bultzatzeko ekintza positiboak sustatzea.
- Hezkuntza-, osasun- eta gizarte-zerbitzuak sortzea, komunitatean horrelakorik ez badago eta beharrezkotzat jotzen bada.
- Gizarteak elkaratearen jarduera-eremuko haur eta gazteentzako zerbitzu guztietan parte hartzeko moduak bilatzea.
- Hezkuntza-, osasun- eta gizarte-zerbitzu publikoekin lankidetzan aritzea eta horietan parte hartzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoan alor horietan diharduten organismoen laguntza eta babesa bilatzea.

Haurrentzat elkaratea Errekalden dago (7. Barrutia). 30 urte baino gehiago darama lanean bere helburuak lortzeko eta bigarren puntuan deskribatutako estrategiak aurrera eramateko, haur eta gazteentzako Julian Ajuriagerra Osasun Mentaleko Zentroaren bitartez.

1988az geroztik, Bilboko Udalak, Osasun eta Kontsumo Sailaren bitartez, laguntza ekonomikoa eman dio zentro horretan aurrera eramandako jarduerari. Bada, laguntza horrek indarrean jarraitu behar du, deskribatutako ekimenak, bere jatorri, ibilbide eta kohesio-balioa dela eta, ezarpen-maila altua duelako bere lurralde-eremuan eta eremu materialean.

Bost.- 2023ko otsailaren 15ean, aipatutako elkarteak Julian Ajuriagerra Osasun Mentaleko Zentroan haur eta gazteen osasuna sustatzeko programa aurkeztu zuen, urte horretarako. Programa horretan jakinarazten da ezinezkoa dela 2023ko ekainaren 30etik aurrera garatzea; izan ere, Bizkaiko Osasuneko Lurralde Ordezkaritzaren eta Haurrentzat Elkartearen arteko osasun-ituna 2023ko uztailaren 3an amaitzen da, eta, ondorioz, Elkarteak ezin du bere proiektu guztiekin jarraitu data horretatik aurrera. Hala ere, ikuspuntu teknikitik begiratuta, programa hauosatzen duten ekintzak ez dira aldatzen, baina ekintzak gauzatzeko denbora erdira murrizten da, eta, beraz, aurrekontua ere erdira murrizten da, 18.000 eurotik 9.000 eurora. Programarekin batera, kontzeptukako exekuzio aurrekontua ere aurkeztu zuen. Hitzarmen honen eranskin gisa doaz aipatutako dokumentuak: «Julian Ajuriagerra Osasun Mentaleko Zentroan haur eta nerabeen osasuna sustatzeko programa», I. eranskin gisa; eta «exekuzio-aurrekontua» (azalpen-dokumentuarekin batera), II. eranskin gisa. Biak dira hitzarmenaren parte, eta, beraz, alderdiek sinatu egin beharko dituzte.

Sei.- Bilboko Gobernu Batzordeak, 2023ko XXXXXXXXX egindako saioan, erabaki zuen 2023ko Gastuen Udal Aurrekontuan aurreikusitako 9.000,00 €-ko dirulaguntza izenduna ematea, zuzenean, Haurrentzat elkarteari, «Julian Ajuriagerra Osasun Mentaleko Zentroan haur eta gazteen osasun mentala sustatzeko programa» garatzeko.

Zazpi.- Hitzarmenak direnez tokiko aurrekontuetan izendun gisa aurreikusitako dirulaguntzak bideratzeko ohiko tresna, Bilboko Udalak (Osasun eta Kontsumo Saila) eta Haurrentzat elkarteak, aurreko guztiarekin bat etorritik, erabaki dute emandako dirulaguntza zuzenetik eratorritako konpromisoak eta baldintzak definitzea, eta hitzarmen hau sinatzen dute, honako hauen arabera:

H I Z P A K E T A K:

Bat.- Hitzarmen honen xedea da Udal Aurrekontuan izendun gisa jasotako, eta Gobernu Batzordearen 2023ko XXXXXXXXXX Erabaki bidez Haurrentzat elkarteari zuzenean emandako dirulaguntza bideratzea. Dirulaguntza hori eman da, aipatutako elkarteak Julian Ajuriagerra Osasun Mentaleko Zentroan haur eta gazteen osasuna sustatzeko aurrera eramaten duen programa garatzeko, bertan jasotako edukiaren arabera (I. eranskina) eta exekuzio-aurrekontuarekin bat etorritik (II. eranskina). Horren harira,

hitzarmena sinatzen duten alderdien konpromisoak, baldintzak, eskubideak eta betebeharrak ezartzen dira.

Bi.- Haurrentzat elkarreak ibilbide luzea egingo du aurreko atalean deskribatutako programak eta jarduerak aurrera eramaten, eta konpromisoa jartzen du Julian Ajuriagerra Osasun mentaleko zentroan haur eta gazteen osasuna sustatzeko programa aurrera eramateko. Baliabide horren helburua da haur eta gazteen arazo psikologikoak, sozialak eta osasunaren alorrekoak ikuspuntu terapeutikotik artatzea programazio osagarri baten laguntzarekin (Hitzarmen honen xede den programarekin, hain zuzen ere).

Zehazkiago, Hitzarmen honen barne geratzen da honako jarduera hauek egitea:

1.- Familiei arreta emateko programa

Ekintza horrek bilatzen du familia barruko elkarrekintzak hobetzea eta ahalbidetzea adingabea hazi behar den giroa ere hobetzea, adingabe horren osasun mentalak garapen positiboa izan dezan.

Ekintza hori familia-saioen bitartez gauzatzen da. Saio horietan, familiari aholkua eta orientabidea ematen zaio beren ingurunea hobetuko duten komunikazio-bideei buruz, eta guraso zein tutoreak adingabearekin aurrera eraman beharreko lanerako elementu oso garrantzitsutzat finkatzen dira.

Saioetan, honako hauek egiten dira:

- ✓ Familiaren egoera azaltzen da.
- ✓ Adingabearekin aurrera eraman beharreko paetak ezarri eta zehazten dira.
- ✓ Pauta horiek ezartzeko prozesua kontrolatzen da.
- ✓ Aholkularitza ematen da, adingabearen garapena hobetzeko familiak izan beharreko portaeren gainean.
- ✓ Adingabeak familian duen garapen eta bilakaera monitorizatzen da.

Saioen aldizkakotasuna definituko da adingabearen familia-ingurunearen arabera, eta antzemandako beharrianetara egokituko da.

2.- Adingabe etorkinen arretarako programa

Programa horren helburua da arreta ematea beste herrialde batzuetatik etorri, eta gizarte-, eskola-, familia- eta kultura-ingurunean integratzeko zailtasunak dituzten adingabeei. Horretarako, familiarekin errefortzu-lana

egiten da, posible denean, haien ongizateaz arduratzen diren gizarte-entitateekin lankidetzan. Honako hauek lantzen dira:

- ✓ Adingabea: arreta espezifikoa, duen patologiaren arabera.
- ✓ Familia: adingabearen prozesuaren gaineko aholkua eta monitorizazioa.
- ✓ Ingurune sozioedukatiboa: adingabearen garapena hobetuko duten ekimenak aurrera eramatea, hark jardungo duen hurbileneko inguruneetatik, bere gizarteratzean laguntzeko.

3.- Udal sailekin eta eremu soziosanitarioko entitate eta elkarteekin koordinatzeko programa

Osasun mentala gizarte-, kultura-, familia- eta hezkuntza-ingurune egokiaren mende dagoela oinarri hartuta, Haurrentzat elkarteak, programa horren bitartez, bere jarduerak koordinatzen ditu bai udal sailekin, baita barrutiko sare soziosanitarioarekin ere.

Ilido horretan, Udalaren Oinarritzko Gizarte Zerbitzuei beharrezko informazioa ematen zaie, gizarte-langileen lana bideratzeko, beren ekimenen eragina areagotzeko eta egindako lanari testuingurua emateko, familiekin eta pazienteen inguruneekin.

Metodologia oinarritzko gizarte-zerbitzuekin koordinatzeko bileretan oinarritzen da, barrutiaren beharrian sozialek ezarritako aldizkakotasunarekin eta ahal den neurrian. Era berean, metodologiak berarekin darama pazientearen eta hark bizi izandako egoeren gaineko konfidentzialtasuna zaintzeko betebeharra.

Osasun eta Kontsumo Sailarekin, koordinazio- eta laguntza-mekanismoak ezartzen dira.

Hiru.- Haurrentzat elkarteak konpromisoa hartzen du bigarren atalean deskribatutako programazioa aurrera eramatea bermatzeko beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak edukitzeko. Halaber, konpromiso hauek hartzen ditu:

- Unean uneko txostenak egitea eta bidaltzea, hitzarmenaren eremuaren barruan, Osasun eta Kontsumo Sailak eskatuz gero.
- Hitzartutako programazioa gauzatzean eragina izan dezakeen edozein gorabeheraren berri ematea behar besteko aurrerapenarekin eta jarduteko alternatibekin batera, baldin eta gorabehera horrek hitzartutako jardueraren bat garatzea eragozten badu.
- Zerga-, lan-, Gizarte Segurantzaz eta laneko segurtasun- eta higie-ne-araudia betetzea; batez ere, Hitzarmen honetan zerrendatzen diren jardueretara atxikitako langileei dagokienez.

Bilboko Udalak beretzat gordetzen du egokitzen jotako ikerketa eta/edo egiaztapenak egiteko ahalmena, Haurrentzat elkarteak bere gain hartutako konpromisoak betetzen direla eta eskatutako justifikazio eta txostenetan jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzeko.

Elkartearen arduradunek Administrazioarekin lankidetzan jardun beharko dute fiskalizazio-eginkizunetan.

Hitzartutako programan jasotako jarduerak doakoak izango dira; eta jasotzaileak Bilboko biztanleak izango dira, oro har.

Aldi berean, genero-ikuspegia kontuan hartu, eta, ahal den neurrian, ikuspegi hori integratu beharko da egingo diren jardueretan. Entitateak, nahitaez, jakitera eman beharko du Udalak proiektua garatzen lagundu duela: batetik, sortzen diren materialetan (informazio-orriak, eskuorriak, kartelak...) Udalaren logotipoa jarrita (Osasun eta Kontsumo Saila); eta, bestetik, aholkua jasoko duten zentroetako arduradunei lankidetzan horren berri emanda.

Lau.- Bilboko Udalak (Osasun eta Kontsumo Saila) hitzartutako jarduera finantzatzen du. Horretarako, Udal Aurrekontuan izendun gisa jasotako dirulaguntza ematen du, zuzenean, eta, gehienez ere, 9.000 €-ko zenbatekoarekin. Dagozkion ekonomia- eta kontabilitate-eragiketak egin dira, Osasun eta Kontsumo Sailaren 2023ko gastu-aurrekontuaren kontura. Ordainketa bakarra egingo da, Hitzarmen hau sinatzean, eta ez da beharrezkoa izango bermerik aurkeztea.

Bost.- Dirulaguntza hau bateragarria izango da nazioko, Europar Batasuneko zein nazioarteko organismoetako beste administrazio nahiz erakunde publiko edo pribatu batzuek helburu bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin.

Sei.- Emandako 9.000 €-ko dirulaguntza batera ordainduko da, hitzarmena sinatzean. Ez da beharrezkoa izango bermerik eratzeari. Justifikazioari dagokionez, Hitzarmena amaitu eta hurrengo hiru hilabeteetan egin beharko du Haurrentzat elkarteak (2023ko urriaren 1ean baino lehen).

Zazpi.- Programan funtsezko aldaketak egin aurretik, baimena eskatu beharko zaio Bilboko Udalari, idatziz. Udalak beren-beregi eman beharko du horretarako baimena. Funtsezko aldaketak egiteko eskabideak arrazoitu egin beharko dira, eta aurrekontuan eta kronograman izango dituzten ondorioak zehaztu beharko dira. Gobernu Batzordeak dagokion sailaren ordezkariari eskuordetzen dio aldaketa horiek baimentzeko eskumena.

Horri dagokionez, honako hauek jotzen dira funtsezko aldaketatzat:

-Aldaketak helburu orokor eta/edo espezifikoetan.

-% 20tik gorako aldaketak onartutako aurrekontu-partidetan (partiden arteko aurrekontu-aldaketek ezingo diete zeharkako kostuei eragin), programaren guztirako aurrekontua gutxitzen ez badute.

Aldaketak programaren aurrekontua gutxitzen badu, Gobernu Batzordeak onetsi beharko du.

Dirulaguntzaren izaera edo helburuak funtsean aldatzen ez dituen beste edozein aldaketa justifikazioa egiten denean onartu ahalko da, beste batzuen eskubideak kaltetzen ez badira.

Zortzi.- Diruz lagundu daitezkeen gastuak izango dira argi eta garbi diruz lagundutako jardueraren izaera dutenak, premia-premiazkoak direnak eta Hitzarmenean ezarritako epearen barruan gauzatzen direnak. Diruz lagundu daitezkeen gastuen eskuratzeko kostua inola ere ezingo da izan merkatu-balioa baino handiagoa.

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuaren zenbatekoa handiagoa denean sektore publikoko kontratuen legeriak kontratu txikirako⁽¹⁾ ezarritakoa baino, entitate onuradunak gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko dizkie beste horrenbeste hornitzaileari, obra egiteko konpromisoa hartu baino lehen, zerbitzua eman baino lehen edo ondasuna entregatu baino lehen.

Bestalde, justifikazioan edo, hala badagokio, dirulaguntza-eskaeran aurkeztu beharreko eskaintzen arteko hautua efizientzia- eta ekonomia-irizpideen arabera egingo da, eta, ekonomikoki abantailatsuena den proposamena hautatzen ez bada, memoria batean justifikatu beharko da, espresuki.

(1) Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen arabera, kontratu txikiak 15.000 eurotik beherakoak izango dira (BEZa kanpo), baldin eta horniketa- edo zerbitzu-kontratuak badira.

Bederatzi.- Dirulaguntza hau Hitzarmena amaitu eta, gehienez ere, hiru hilabeteko epean justifikatuko da, **2023ko urriaren 1ean baino lehen**, Dirulaguntzen Erregelamendu Orokorraren 72. artikuluan xedatutakoaren arabera. Horretarako, justifikazio-kontu bat eta gastuen egiaztagiria aurkeztu beharko dira, honako hauek barne:

- d) Jarduketan memoria, dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duena eta egin diren jarduerak eta lortu diren emaitzak zehazten dituen.
- e) Programa egikaritzearen ondoriozko gastu eta diru-sarreraren balantzea, Udalaren ereduaren arabera.
- f) Programa garatzeko aurreikusitako epe barruan egindako gastuak egiaztatzen dituzten jatorrizko agiriak. Horretarako, honako hauek bereiziko dira:
 - Programa gauzatzearekin zuzenean zerikusia duten kostuak. Guztiz justifikatuta egon beharko dute, ordainagiri bidez edo froga-balio baliokidea duten bestelako agirien bidez.
 - Gastuak justifikatzeko agirietan, datu hauek jasoko dira, nahitaez:
 - Onuradunaren identifikazioa.

- Gastuaren xedearen deskribapena, programa gauzatzearekin zuzenean lotuta egongo dena.
- Era berean, justifikazio-dokumentuak justifikatzen duten programara mugatuko dira. Salbuespenez, enpresaburuak edo profesionalak ez diren pertsonak noiz edo noiz egindako jardueretan, adostutako prestazioaren zenbatekoa jasotzen duen hartze-agiria aurkeztea onartu ahalko da, jasotzailearen identifikazio-agiriarekin batera (NANa, AIZ edo pasaportea). Ordainsaria 200 € baino gehiago bada, derrigorrezkoa izango da jasotzailearen banku-kontuan ordainketa egin izanaren ziurtagiria aurkeztea.
- Langileen gastuak justifikatzeko, nominak eta Gizarte Segurantzari egindako kotizazioak aurkeztuko dira.

Zeharkako kostuak, espresuki eskatzen ez bada, ez dira agiri bidez justifikatu beharko. Kostu horiek diruz lagundutako jarduerari atxikiko dizkio, arrazoizko neurrian, pertsona edo erakunde onuradunak, normalean onartzen diren kontabilitate-arloko printzipio eta arauarekin bat etorrira, eta, betiere, kostu horiek jarduera gauzatzen den aldikoak badira. Jarduerari dagokion kostua ez da inoiz izango diruz lagundutako programaren zuzeneko kostuen % 10 baino handiagoa. Justifikatzeari dagokionez, dirulaguntza emateko baliatutako aurrekontuan onuradunak berak aitortutakoa izango da zeharkako kostuetan onartuko den ehunekoa, zeina egiaz justifikatutako zuzeneko gastuei aplikatuko baitzaie.

Hamar.- Hitzarmen hau sinatzen den egunean sartuko da indarrean, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du eragina, eta 2023ko ekainaren 30n amaituko da.

Hamaika.- Hitzarmen hau bertan xedatutakoaren arabera beteko da, eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean eta arlo horretan aplikatzekoak diren gainerako arau-xedapenetan ezarritakoaren arabera ebatziko dira sor daitezkeen zalantzak eta hutsuneak.

Eta ados daudela adierazteko, parte hartzen duten alderdiek sinatu egiten dute, hasieran adierazitako leku eta datan.

BILBOKO UDALAREN OSASUN
ETA KONTSUMO SAILEKO
ZINEGOTZI ORDEZKARIA

HAURRENTZAT ELKARTEA

Yolanda Díez Saiz

Cristina Maestro Fernández

